

25 zenbakia
2018ko ekaina

bai

ziurtagiridunen
aldizkaria

#BAIEUSKARARISARIAK18



JON GARAÑO
ETA AITOR
ARREGI



FIDESLAN



MITXELENA,
KOOP.ELK.



Rober Gutiérrez
[Zuzendaria]
@robergutierrez

#BaiEuskarariSariak 18

Udako solstizioarekin batera dator Bai Euskarari sarien bederatzigarren edizioa. Solstizioa abiapuntu bezala harturik, suaren inguruko euskararen akelarre berezia ospatu nahi dugu. *Zapoak eta sugeak erre! Artoak eta gariak gorde!* Orain arteko une eta esperientzia txarrak atzean utzi, ikasgai onak baliatu eta aurrera begirako erronkei elkarrekin gogotsu helitzeko. Konplizitateak zipriztinduriko giro sorgindua sortzen lagundu nahi dugu era guztietako erakundeen artean. Sua, txalaparta, lapiko magikoa, erritualak... eta edabe berezi bat ere partekatuko dugu, euskararen edabea, euskal komunitatea indartu eta balioa gehituko diona.

Ohi bezala, ekitaldi berezia Bai Euskarariaren komunitate osatzen dugunontzat. Bai Euskarari ziurtagiria duten eta alor sozioekonomikoaren espazioetan euskararen sustapenaren alde egindako ibilbideagatik edo ekarpenagatik sartitu izan ditugu enpresa eta pertsona ugari aurreko urteetan: JEZ (Laudio), IMH Institutua (Elgoibar), Kirmen Uribe, Refractarios Kelsen (Aduna), Hirukide ikastetxea (Tolosa), Sokoa (Hendaia), Xabier Mendiguren Bereziartu, Skunk Funk, Arlan (Erandio), Jose Anjel Iribar (Athletic), VUSA eraikuntzak (Galdakao), Leitzako, Aresoko, Goizuetako eta Aranoko ziurtagiridunak, Anaje Narbaiza (Elay), Banaiz Bagara, Mendia Optika (Gasteiz), Kike Amonarriz, Euskal Herria Esnea, Nekatur, Gaizka Garitano, Sorginen Museoa eta Lezea (Zugarramurdi), Laneki, Mikel Lezamiz (Mondragon taldea), Miren Fuldain Farmazia (Getaria), Zergatik eta Joxemari Sors eta Jon Jaka (Elkar Fundazioa).

Aurtengo edizioan, ziurtagiria duten bi enpresa eta azken urteetan eragin handia izaten ari diren sona handiko bi zine-zuzendari saritu nahi izan ditugu. Lehenengo saria Fideslan aholkularitza enpresarentzat izan da, enpresa-kudeake-

tan eskarmentu zabaleko profesional taldearentzat. Enpresa estrategietan adituak dira eta argi dute arlo profesionalean euskarak balio berezia eskaintzen duela, barnera eta kanpora begira. 2012an Bai Euskarari ziurtagiria lortu zuten eta 2015ean "Zerbitzua eta lana euskaraz" maila gorenera iritsi ziren. Bai Euskarari Saria merezi dute Euskal Herriko enpresen estrategiak euskaraz marrazteagatik.

Bigarren saria, Talleres Mitxelenak jaso du, industria eta teknologia sektoreko Hernaniko kooperatiba euskaldunak. Ibilbide emankorra egin du, mende erdia baino gehiago baitarama Euskal Herriko eta mundu mailako bezeroentzako pieza industrial handiak eta bereziak egiten. Makinak, puntako teknologia, tresna erraldoiak dituzte... baina haien motore garrantzitsuena, lantaldea da. 2012an lortu zuten Bai Euskarari ziurtagiriaren "Zerbitzua euskaraz" eta Euskal Herriko industriaren euskara ikusgarri egiteko lan egiten dutelako merezi dute Bai Euskarari Saria.

Hirugarren saria handia izan da aurtengoan, alfonbra gorria maiz zeharkatzen ari diren Aitor Arregi eta Jon Garaño zine-zuzendariak jaso baitute euskal kultura eta euskaraz ekoizturiko zinemaren industria etengabe hazteko lan egiteagatik. Pelikulak dionez, "inor ez da etengabe hazten", baina Bai Euskarari Elkartetik handitzen jarraitzeko eskatuko diegu, zinearen industria euskaraz elikatzen laguntzeko eta gure hizkuntzak lekua irabazten segitzeko. Hainbeste Goyaren artean, Bai Euskarari Saria ezin hobeto geldituko zaie euskararen lagun handiei.

Poza, ilusioa eta harrotasuna adierazi dute aurtengo sarituek, Bai Euskarari Saria jaso dutenean. Alor sozioekonomikoan euskara sustatzearen aldeko baliolan sinesteagatik eta egindako ekarpenengatik, sari hau merezi dute.

Bai Euskarari Sariak 03

Jon Garaño eta Aitor Arregi

Handia pelikularen zuzendaria

Talleres Mitxelena

Alaitz Tolosa, Koordinatzailea

Fideslan

Mikel Saizar, Zuzendaria eta

koordinatzailea

Lansarean App 10

Enpresarean TB 11

Arabana Euskara Lanabes 12

#LehenHitzaEUS 14

Baietz 60 establezimendu berri

Ziurtagiri bat?

Eta askoz gehiago! 15

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkarte
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain
t. 943592148

1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0524336196

Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 673811048

Rogelia de Alvaro Elkarteen Etxea A.1.1.
Panama, z/g - 01012, Gasteiz t. 945215196

Martzelo Zelaieta, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa
31014 Iruñea t. 673811048

Zuzendaria: Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:
Bai Euskarari Elkarte eta Arteman Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez

Argazkiak:
Bai Euskarari Elkarte eta Arteman Komunikazioa.

Inprimatzailea: Leitzaran

Banaketa: Bai Euskarari Elkarte

Lege gordailua: SS-497-2010

baieuskarari.eus



JON GARAÑO eta AITOR ARREGI

Handia pelikularen zuzendariak

“Hazten jarraitu nahi dugu, gero eta pelikula interesgarriagoak eginez”

Aurten lagun bereziak ditugu Bai Euskarari sarietan, euskararen lagun handiak. Euskal kulturaren eta zinema-industriaren ordezkari bilakatu dira azken urteotan Jon Garaño eta Aitor Arregi, Handia filmeko eta Moriarti ekoiztetxeko zuzendariak. Ez dakite euskal zinemaren industria, Alzoko erraldoia bezala, etengabe haziko ote den, baina badakite gero eta pelikula hobeak egin nahi dituztela eta euskara nazioarte mailan kokatzeko lanean jarraituko dutela.

Euskararen lagunik hoberenak izan zarete alfonbra gorrian, euskal zinemaren ordezkariak. Bai Euskarari Laguna Saria, zuena da.

A: Saria jasotzea oso polita izan da, poz handiz hartu dugu. Gure ustez, *Handia* pelikularen bidez espazio mediatiko eta publikoetan euskararen presentzia nabarmentzea lortu dugula adierazten du aitortza honek.

Goya Sarien historian sari gehien jaso duen hirugarren filma da *Handia* eta izar ospetsuenen artean ospatu duzue. Nola bizi izan duzue?

J: Sari asko jasotzeko zortea izan dugu eta nabarmenenak Goyak izan dira. Bakoitzak oso modu ezberdinean bizi zuen; nire kasuan, pozez eta zorion handiz, ez nuelako espero 10 Goya irabaztea, baina arraroa ere egin zitzaidan, oso azkar pasa zelako eta taldearekin ospatzeko denbora gutxi izan nuelako. Adibidez, poztasun bereziagoa sentitu nuen Donostiako Zinemaldiko saria jaso nuenean; baina, dudarik gabe, oso polita izan zen Goyetan taldekide guztiak saria jasotzen ikustea eta horregatik bakarrik merezi izan zuen.



“Amama”, “Loreak”, “Handia” eta abar pantaila handietara eraman dituzue. Argi izan zenuten hasieratik euskaraz lan egingo zenutela?

A: Istorioak eta lekuak erabiliko den hizkuntza baldintzatzen dute. Gure kasuan, euskaldunak gara eta “ehizatu” nahi izaten ditugun istorioek hemengo

oinarria dute. Argi genuen euskaraz lan egingo genuela, istorioarekin koherentea izango zuelako.

J: Lengoia zinatografikoa funtsezkoa da, baina istorioak baldintzatzen du pertsonaiak zein hizkuntzatan mintzatzen diren. Hizkuntzaren erabilera tramaren parte da gure azken pelikulan. Horregatik ere, hemengo publikoak pelikula bere osotasunean eta ñabardura guztiekin gozatu du.

Interneten iritzi hau irakurri dugu: “Tim Burton euskalduna izan balitz, Handia filmatuko zuen”.

A: Ez dakit. Polita da horrelako gauzak irakurtzea, baina askotxo esatea iruditzen zait. Tim Burton-ek, bere gorabeherekin, hainbat maisulan egin ditu, tartean “Edward Scissorhands”; agian horregatik lotu gaituzte zuzendariarekin.

“Handia pelikularen bidez espazio mediatiko eta publikoetan euskararen presentzia nabarmentzea lortu dugula adierazten du aitortza honek”.



Edozein modutan ere, gure pelikulek Tim Burtonen mundua iradokitzea lortu badute, piropo bezala hartzen dugu.

XIX. mendean bizi izan zen Altzoko Handiak mundua zeharkatzea lortu duzue. Ez da gauza makala. Netflix-en ere ikusi dezakegu. Zer dio munduak Altzoko erraldoiari buruz?

J: Denetarik dago, eta hori ona da, badakigulako ez dela publiko guztientzako

pelikula bat. Hasieran dudak sortu zitzaizkigun ez genekielako nazioartean ondo ulertuko zen, baina lasai eta pozik gelditu ginen Donostiako Zinemaldiko nazioarteko epaimahaiaren sari berezia eman zigutenean eta Londresen aurkeztu eta balorazioa jaso genuenean. Eta, nola ez, Netflix-en egotea oso ona da, guretzat eta pelikularentzat, jende gehiagori pelikula ikusteko aukera eskaintzen baitio.

2,42 metro neurtzen zituen pertsona bat pantailara eramatea ez dirudi batere erraza. Zeintzuk izan dira produkzio lanetan topaturiko zailtasun eta erronka nagusiak?

A eta J: Erraldoiaren sinesgarritasuna lortzea izan da pelikula honetako erronka nagusia; izan ere, publikoaren begietan, pertsonaia fantastiko bat baino, gizon altu bat irudikatu nahi genuen, diskretua. Horretarako, ezinbestekoa

enpresarean

Azoka 2018

URRIAK

25 **ORONA GALLERY / HERNANI**

bai
euskarari

baieuskarari.eus
f t y i .. i
Ziurtagiri bat baino askoz gehiago

izan da lantalde osoaren lana. Alde batetik, nabarmentzekoa da Eneko Sagardey izan duen gaitasuna Joakinen paperean barneratzeko eta erraldoia sinesgarri egiteko; era berean, ezin dugu ahaztu Ainhoa Eskisabel eta bere taldearen makilaje eta ileapaindegi lanak, pertsonaiaren karakterizaziorako behar-beharrezkoak izan direnak. Horretaz aparte, ezinbestekoa izan da 2,32 metroko ordezkoko batekin lan egitea eta efektu digitalen bidez eszena zail batzuk hobetzea. Guztiaren konbinazioari esker lortu dugu erraldoi sinesgarria.

Bai Euskarari Sariak Jonen eta Aitorren izenak badaramatzate ere, badakigu taldean irabaziak eta merituak partekatzen dituzuela. Zerbait berezirik esango zeniekete "lan-lagun handi" horiei?

J: Nola ez. Beti esaten dugu pelikulak lan-talde oso baten emaitza direla, ez bi zuzendarienak, ez fokoan dauden aktoreenak ere. Pelikulak egiteko behar ditugu: argazki zuzendariak, kamera laguntzaileak, jantzien arduradun eta diseinatzaileak, soinu teknikariak, elektrikoak... talde handia dago. Horregatik, saria Moriarti ekoiztetxearen talde inplikatuarentzat da. Era berean, ezin ditugu ahaztu urte guzti hauetan bidelagun izan diren: Irusoin ekoizleak, Kowalski Films, Koldo Zuazua... pelikula hau egiteko horien laguntza ezinbestekoa izan delako. Eta, nola ez, dirua jarri duten guztiei. Askotan, fokoan bi zuzendariak gauden arren, lan-talde oso handia dago gurekin.

Bikote guztiek bezala, gazi-gozoek biziko dituzuenek, zeintzuk izan dira Garaño eta Arregi bikotearen mo-



Iturria: <http://www.handiafilm.com>

mentu on eta txar nabarmenenak?

A: Errodajeen egoten dira tentsio momentuak, baina pertsonalki okerrago pasatzen dut edizio garaian, buelta asko ematen dituzulako, eta zentzu horretan, egoera zailak pasa ditugu, ez bikote moduan, baizik eta talde moduan. Momentu onei dagokionez, pozgarria eta ederra da ikustea, sufrimendu eta tentsio ugariren ondoren, Donostiako Zinemaldira iritsi ginenetik aurrera egindako ibilbidea. Gazi-gozoek eman dizkigu pelikulak; gaziak baino... gozoek.

Pelikulak dionez, "inor ez da etengabe hazten". Edo, bai?

J: Pelikulak hori dio, baina gero ikusten da badagoela pertsonai bat etengabe haziko dena. Gizartean ere hori gertatzen da, batzuk haziko dira eta beste batzuk, ezin aurrera egin, geldirik gertuko dira. Nik uste dut nahi izatea dela garrantzitsuena eta guk hori behintzat badugula; hazten jarraitu nahi dugu eta gero eta pelikula interesgarriagoak egin nahi ditugu.

Euskal kulturaren industria ere, etengabe haziko al da?

A: Ez dakit... dakidana da egiten ari garen bidea ez dela txarra; uste dut proposamen ederrak egiten ari direla sortzaileak, kulturaren alor desberdinetan. Baina herri, hizkuntza eta kultura txiki batez hitz egiten ari garen heinean, ez dakit etengabe haziko den. Uste dut batzuetan haztea eta besteetan mantentzea edo atzera egitea tokatuko zai-gula. Kuantitatiboki hazi baino, kualitatiboki hazi behar dugu. Euskal kultura, gure desio nagusia da ikustea beste kultura batzuetan eskaintzen eta sortzen diren den produktuak hemen ere egin daitezkeela. ●

"Nik uste dut nahi izatea dela garrantzitsuena eta guk hori behintzat badugula; hazten jarraitu nahi dugu eta gero eta pelikula interesgarriagoak egin nahi ditugu".

**GURE KULTURAREN
KOLORE GUZTIAK**

LEITZARAN
grafikak

Gudarien Hiribidea 29
20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tf: 943 30 35 10
www.leitzaran.eus
grafikak@leitzaran.eus

Alaitz Tolosa Koordinatzailea

“Guztion inplikazioari esker lortu dugu Bai Euskarari Saria. Pozik eta Harro”

Talleres Mitxelenak, Hernaniko kooperatibak, solstizio berezia biziko du aurten. Bai Euskarari Saria jaso berri, ospakizuna prestatzen ari dira jada, pozez beterik eta oso motibaturik. Alaitz Tolosarekin izan gara, mundu mailako enpresaren koordinatzailea, ideia argiak dituen emakumea eta kooperatibaren identitate sendoaren ordezkari eta defendatzailea.

Bai Euskarari Saria jaso duzuela jakin berri duzue. Zer pasa zaizue burutik? Bihotzetik?

Izugarrizko poza. Sorpresa. Harrotasuna. Sekulakoa. “Historia” izan da burura etorri zaigun lehenengo gauza, hainbat urtetan egin dugun ibilbidearen, egindako lanaren aitortzea. Nik 10 urte daramatzat Mitxelenan lanean eta hasieratik harrিতuta gelditu nintzen kooperatibak bizi zuen kultura euskalduna ikusi nuenean. Lantalde euskalduna dugu, gogotsua, inplikaturik eta guztion artean lortu dugu gure lan hizkuntza % 100ean euskara izatea. Horrelako sari batek aurrera egiteko “txute” bat ematen digu.

1960an sorturiko kooperatiba zaretu. Mende erdia baino gehiago pieza berezi eta tamaina handikoak egiten. Gehiago jakin nahi dugu...

Industria eta teknologia sektorea deskribatzea zaila da. Altxairuzko pieza handiei forma ematen diegula esan genezake. Horretarako, tornu eta fresadorak ditugu, oso pieza handiak eta bereziak dira. Baina teknologiaz hitz egiten ari garen arren, nabarmendu nahiko nuke artisauak gabela. Bezeroaren eskakizunaren arabera pieza egiten ditugu, oso baldintza ezberdinetara egokitutakoak, exigentzia maila han-

diarekin eta gutako bakoitzaren inplikazio osoarekin.

Talleres Mitxelena-k balioz eraikitako ibilbidea egin du.

Bai. Mitxelenatar anaiek sortu zuten Talleres Mitxelena, orduan zilindro hidraulikoak fabrikatzeko. Urteak pasata, 90. hamarkadan, krisia etorri – ez etorri, langileak hartu zituzten eta elkartasunean oinarrituriko enpresa sortu zuten. 2000. urtean, kooperatiba izatera pasa zen eta ordutik, saiakera berezia egiten ari gara lantaldearen baloreak eta inguruarekiko eraginkortasuna berreskuratzeko. Gaur egun, mundu mailara iristeko gaitasuna dugu. Hori bai, nazioartean ere, gure DNA euskalduna da.

Mundu mailan, Hernanitik, Euskal Herritik eta euskaratik. Sektorea oso ondo ezagutzen duzue zuek. Zein da Euskal Herriko industria sarearen egoera?

Egia esan, mundu mailan, konpetentzia handiarekin ari gara lanean eta, gainera, zoritxarrez, “España” markak hornitzaile bezala ez digu mesede handirik egiten, Europa mailan ospe nahiko negatiboa baitu. Zentzu horretan, uste dut beharrezkoa dela Administrazioetik Euskal Herriko lurraldetasunaren marka sustatzea eta enpresa sarea marko



horretan kokatzea. Herri bezala, izugarrizko talentua eta potentziala dugu, eta elkarrekin, urrutira iritsi gaitzake.

Txikitasunetik, aktibo handia duzuela nabarmentzen duzue: lan-taldea eta ekipamendua.

Ekipamenduarena, pieza handiak ditugulako. Baina hori ez da nahikoa, lantaldea da garrantzitsua. Makina asko

“Lan-talde euskalduna dugu, gogotsua, inplikaturik eta guztion artean lortu dugu gure lan hizkuntza % 100ean euskara izatea”.



dago, baina guk eskarmentudun eta inplikazio handiko jendea dugu. Guztioek sentitzen gara proiektuaren partaide eta horrek eragiten du edozein arazoren aurrean erantzuteko jarrera izatea, langileok dena ematea.

Zein paper hartzen du hizkuntzak kooperatiban?

Euskara da gure hizkuntza naturala, guztiz txertatuta dugu, lanerako tresnetan, komunikazioan... Hizkuntzak kooperatibaren identitatea lantzeko balio izan digu. Lurraldetasunarekiko lotura ematen digu. Kanpora begira ez zaigu ahaztu enpresa gara eta herriarentzako egin behar dugula lan.

Gainera, ezin dugu ahaztu beste lekuetan ateak irekitzeko beharrezkoa dela hizkuntza. Bezeroari zerbitzua bere hizkuntzan eskaini ahal izateko, guztioek ari gara etengabe ikasten.

Zein neurri hartzen dituzue euskara sustatzeko?

Euskara, orokorrean, era naturalean bermatuta dago. Maila formalean eta baita informalean ere; informazioa, tresnak, dokumentazioa... euskaraz ditugu. Gainera, bere garaian, Elhuyarrek egin genuen proiektu baten bidez

gure hizkuntza politika idatzi eta gure lankideekin partekatu genuen, hizkuntza ohitura formalizatzeko eta lankideei ere gogorarazteko zein garrantzitsua den guretzat euskaraz egitea. Euskara da identitatea. Lurraldetasuna. Gertutasuna.

Kanpora begira ere, euskal komunitatean eragiten saiatzen gara, laguntza eskainiz, beste batzuekin ikasiz eta praktika onak erakutsiz.

Zein da euskararen egoera industria eta teknologia sektorean?

Euskara industrian txertatzeko lan handia dago oraindik, nahiz eta batzuk horretan diharduten. Euskarazko hiztegi teknikoa falta zaigu eta horrela ezinezkoa da euskaraz lan egitea, batez ere negozio harremanetan; formaltasunetik hitz egiten hasten garenean, erdarara jotzen du jendeak gehienetan.

Kalitatea bermatzen duten zigilu asko lortu dituzue, horien artean, Bai Euskarari ziurtagiria. Zergatik erabaki zenuten azken hori eskuratzeko?

Kooperatibaren etengabeko hobekuntza estrategiaren barruan kokatzen dugu. Lehenetsuna eman genion, ba-

rrura begira, etxe barruko hizkuntza normalizatzeko eta, kanpora begira, bezeroentzat garrantzitsua izango zela pentsatu genuelako.

Pauso handiak eman dituzue eta 2012an Bai Euskarari ziurtagiriaren "Zerbitzua euskaraz" mailara igo zineten.

"Bidean" maila ziurtagiria lortu genuenean erronka planteatu genuen, egun izaten jarraitzen duguna: euskaraz lan egitea. Pixkanaka, ilusio handiz, aurre-rapausoak ematen ari gara, tipi-ttapa eta, garrantzitsuena dena, elkartasunetik ari gara. Taldearen sentsibilizazioa ezinbestekoa izan da prozesu honetan eta esan beharra dago guztion inplikazioari esker iritsi gara "Zerbitzua euskaraz" maila eskuratzera eta orain Bai Euskarari Saria irabaztera. Harro gaude. Pozik. ●

"Kanpora begira ere, euskal komunitatean eragiten saiatzen gara, laguntza eskainiz, beste batzuekin ikasiz eta praktika onak erakutsiz".

Mikel Saizar Zuzendaria eta koordinatzailea

“Bezeroa entzun, ulertu eta erantzun. Konfiantzatik, euskaraz”

Fidagarritasuna da Fideslanen gakoa, bezeroekiko harremana eta gertutasuna. Pertsonen begira lan egiten dute, egoera bakoitza aztertuz eta irtenbide pertsonalizatuak eskainiz. Euskararen balioa oso argi dute eta, ahal den neurrian, Euskal Herriko enpresei eta profesionalen bide estrategikoak hartzen laguntzen diete, euskaraz.

Zein aurpegi jarri zenuen “Bai Euskarari Saria zuena da” entzun zenuenean? Espero zenuen?

Sorpresa, poza eta ardura nahasten dituen aurpegi bat. Sorpresa, ez genuelako inondik-inora espero; askotan pentsatu ohi dugu horrelako sariak enpresa handientzat izaten direla. Poza, sariak jasotzea beti delako pozgarria; eta ardura, alde batetik, enpresa txiki bat izanik, hainbeste entitatearen artean aukeratuak izateak esan nahi duenarengatik, eta beste alde batetik, enpresa barruan euskararekiko konpromisoa hartzeak bere lana eta ahalegina behar dituelako.

FIDESLAN. Enpresa arloko aholkularitza familiarra?

Familia-enpresa txikia da gurea, enpresei eta autonomoen aholkularitza osoa ematen diena: hainbat arlotako aholkularitza (lan harremanetakoa, fiskala eta

kontabilitatea), finantza eta kudeaketa estrategikoko kontsultoria eta aholkularitza juridikoa eta merkantila ere. 1999an hasi ginen Donostiako bulegoan eta hiru urte beranduago, Ondarroako bulegoa zabaldu genuen.

Enpresa-kudeaketan esperientzia zabaleko profesionalak zarete. Izenak dioen bezala: fidagarriak eta langileak.

Gure bezeroenganako orientazioa daukagu. Ahal dugun heinean haien emaitzak hobetzen saiatzen gara. *Fides* latinetik datorren hitz bat da eta konfiantza, fedea, fidagarritasuna esan nahi du. Gure izenak dioen bezala, bezeroarentzat fidagarriak izateko lan egiten dugu.

Krisia izan da Euskal Herriko entitate askoren amesgaiztoa. Aholkulari gisa, kasu asko eta asko entzun eta bideratu behar izan dituzue.

Gure bezero gehienak autonomoak eta enpresa txiki zein ertainak dira. Krisiaren garai gogorrenetan askok kolokan ikusi zuten haien biziraupena eta kezka nagusia gastua murriztea izan zen. Enpresen kasuan, garairik emankorrenetan ere, kaudimen sendoa izateko ardura hartu dutenak izan dira egoera txarrenetan irauteko gaitasuna izan edo krisia hobeto jasan dutenak.

Krisi garaian aholkuak emateko tarte txikia dago. Diru-sarrera berriak bilatzea, gastuak murriztea eta bezeroen

“Gure nahia da, ahal dugun neurrian, lan munduan euskara indartzen joatea eta egunerokotasunean hizkuntza erabiltzea”.




**LAN
sarean**

**Lansarean
app berria!**

Euskarazko
lan-ataria

Hemen eskuratu



Bai Euskarari Elkarteak
sustatutako proiektua





“Zenbat eta gehiago izan, are gertuago edukiko dugu euskara lan munduan eta bizitzako alor guztietan”.

kudeaketa egokia egitea izan dira gure gomendioak.

Enpresa handiak, enpresa txiki eta ertainak, ekintzaileak. Zein da Euskal Herrian behar dugun eredua?

Euskal Herrian enpresa txikiek eta ertainek betidanik izan dute indar eta pisu handia. Atzerrira esportatzen duen industria sendo bat behar dugu eta arlo teknologikoan berritzaileak izan behar dugu. Horretarako, beharrezkoak dira hezkuntza eta formazio sistema egokia edukitzea eta ikerketa, garapena eta berrikuntza indartzea.

Euskara txertatu. Zertarako?

Zertarako galderari erantzun aurretik, zergatik galderari erantzungo nioke. Gu euskaldunak gara, euskaraz bizi gara, euskaraz ikasi dugu. Unibertsitate lan mundura jauzi egin genuenean, egokitu behar izan genuen. Gure nahia da, ahal dugun neurrian, lan munduan

euskara indartzen joatea eta egunerokotasunean hizkuntza erabileran normaltasun batera gerturatzea.

Eta zertarako? Fideslanen bi bulego daukagu, bata Donostian eta, bestea, Ondarroan. Biak gune linguistiko euskaldunak dira eta nahi duenari zerbitzuak euskaraz jasotzeko aukera eskaintzen diogu.

Euskalduntze prozesua hasi gabe duten horiei, zer esango zeniekete?

Aholkularitza sektorean gaztelania erabili izan da betidanik eta askok uste dute oso zaila dela egoera horri buelta ematea. Beste alor guztietan bezala, aldaketak pixkanaka gertatzen dira eta euskararekiko sentsibilitatea dugun guztiok ekarpena egin dezakegu. Zenbat eta gehiago izan, euskara gertuago izango dugu lan munduan eta bizitzako alor guztietan; eta era normalizatu batean erabiltzeko aukera gehiago izango dugu.

2012an Bai Euskarari ziurtagiria lortu zuen FIDESLAN-ek. Zergatik erabaki zenuten ziurtagiria eskuratzeko?

Lehenik eta behin, gure sektorean ere posible dela erakusteko; bestalde, Bai Euskararik euskara lan munduan txertatzeko duen esperientzia eta ezagutzaren abantailak gureganatzeko; eta, azkenik, zerbitzua euskaraz jaso nahi duten enpresentzako erakusleihen bat edukitzeko.

Nola deskribatuko zenuke Bai Euskarari komunitatearen parte izatea?

Eskaintzen duen abantaila nagusia da euskararekiko arduraren dugun enpresa guztion arteko harremanak bideratzea eta erraztea. Lan munduan eduki ditzakegun behar guztiak euskaraz asetzen dituzten enpresak denontzako eskuragarri jartzen ditu Bai Euskarari Elkarteak. ●



TALLERES
MITXELENA, S.COOP.

Eziago poligonoa, 21 • Hernani, Gipuzkoa
Tel.: 943 552 512 / 552 516 • Fax: 943 552 816
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Abian da Lansarean lan-atariaren aplikazioa

Bai Euskarari Elkarateak eskaintzen duen lan-atari erreferenteak euskal hautagaiei eta enpresei zuzenduriko aplikazioa estreinatu du

Bai Euskarari Elkarateak euskaraz dagoen lan-atari bakarraren aplikazioa aurkeztu du: **Lansarean App. 4.000 lan-eskaintza, 400 enpresa eta 3.200 erabiltzaile baino gehiago** jaso ditu atariak eta, oraingoan, tresna berriarekin, pauso bat harago eman nahi izan du, ibilbide profesionala euskaraz garatu nahi duenari erraztasunak ematen jarraitzeko.

Lansarean bi publiko hauei dago zuzendua: alde batetik, **enpresa, saltoki eta era guztietako entitateei**, lan-eskaintzak zabaldu eta hautaketa-prozesuak arinago kudea ditzaten; eta, bestetik, **lan bila ari diren pertsoneri**, euskarazko eskaintza profesionalak modu pertsonalizatu batean jaso eta hobekien egokitzen zaien lana topa dezaten. Bi kasuetan, *Google Playn* eta *App Storen* deskarga dezakete tresna berria, doan.



Lansarean
app berria!
Euskarazko lan-ataria

Hemen eskuratu

Google Play App Store

bai
euskarari

Bai Euskarari Elkarateak sustatutako proiektua

Lehen aukera, euskara. Lan aukera, euskaraz

Jakin badakigu gaur egun, pertsona gehienek aplikazio eta mugikorren bidez egiten dituztela Internet bidezko bilaketak, erreserbak, erosketak, etab. Hori horrela izanik, lan-eskaintzak euskaraz kudeatzeko aukera eskaintzen du aplikazio berriak.

2017an, lan-atari berria aurkeztu zenean, Bai Euskarari Elkaratearen zuzendaria den Rober Gutiérrezek nabarmendu zuen bezala, "euskara eremu sozio-ekonomikoan txertatzea eta erabiltzea funtsezkoa da egunerokoan normaltasunez aritzeko eta hizkuntzaren biziberritzerako. Lan munduan euskara sustatzeko urratsak ematen ari dira, baina erdara da nagusi oraindik ere enpresa eta lantoki gehienetan. Euskaraz normaltasunez aritzeko baliabideak sortu eta garatu behar dira. Euskaraz lan egin ahal izateko ezinbesteko baldintza baita, pertsonak eta espazioak euskararekin betetzeaz gain, baliabideak eta tresnak ere euskaraz egotea eta horiek baliatzea".

Aplikazio funtzionala

Lan bila ari den profesionaleri eta lana eskaintzen duten enpresei eta era guztietako erakundeei zuzenduta dago. Aplikazio berria diseinaturik dago lan-eskaintzen kudeaketa eta hautaketa prozesuak errazak eta eraginkorrak izateko. Sektore anitzeko lan-eskaintzak jasotzen ditu atariak, interesen arabera pertsonalizatu daitezkeenak; aplikazioak, gainera, notifikazioak programatzeko eta eskaintzak ordenatzeko aukera ematen du; kudeatzeko sistema erraza dauka, eta hautagai-enpresa harremanetan jartzeko mezu-laritza zerbitzua eskaintzen du. Horretaz gain, *Lansareaneko* erabiltzaileei ibilbide profesionala euskaraz egiten laguntzeko helburuarekin, orientazio zerbitzuaren eta formazio-agendaren berri ematen du.

4.200 +
LAN
ESKAINZA

400 +
ENPRESA

3.200 +
HAUTAGAI

17.000
SESIO BAINO
GEHIAGO
MAIATZEAN

Google Play
eta App Store-n
deskarga daiteke tresna
berria, doan.



*Ekainean jasotako datuak



Enpresarean TB, euskarazko eduki profesionalak nahieran

Bai Euskarari Elkartek euskal profesionali eta enpresei begira lan egiten du, euskarazko negozio harremanak, enpresa arloko edukiak eta baliabide erabilgarriak eskainiz. Enpresarean proiektuaren bidez, gainera, esperientziak edo-eta jakintzak partekatzen ari dira, euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta profesionalen arteko harremana eta elkarlana sustatuz; Enpresarean azoka, foroak eta enpresarean.eus webgunea dira egitasmoaren ardatz.

Webguneak aukera eta abantaila anitz jartzen ditu euskal profesional eta enpresa sarearen eskura. Otsailean berri zen enpresarean.eus webgunea, gailu ezberdinetara egokituriko diseinu intuitiboarekin, funtzionalitate interesgarriekin eta bestelako berrikuntzekin: Enpresarean TB, agenda profesionala, formazio eskaintzaren erakuslehoia eta enpresa munduko bloga, besteak beste.

Enpresarean TB, nahieran

Enpresarean TB kanala da berrikuntza nabariena estreinaturiko webgunean, martxan jarritako zuzeneko telebista berezia. Bertatik, edozein profesionalak edo enpresak eskaini dezake bere hitzaldia, zuzenean, modu sinplean eta Bai Euskarari Elkartearen laguntzaz. Gainera, emitituriko bideoak gordetzen dira, ondoren ere zabaltzeko, profesionalak eta enpresek euskarazko edukiak nahi dutenean, nahi duten lekutik eta nahi duten unean ikus ditzaten.

Enpresarean Azoka

Helburua da euskal profesionalak eta enpresek, euskarazko eduki profesionalak nahieran izatea, nahi dutenean, nahi duten lekutik, nahi duten unean.

Urriaren 25ean ospatuko dugu euskal enpresa eta profesionalen topaketa, Orona Ideon. Bertan izango dira Euskal Herriko puntako enpresetako ordezkariak, arlo sozioekonomikoko adituak eta eredu tradizionalak aldatzeko indarrekin datozen ekintzaileak. Datozen asteotan zabalduko dira azokaren inguruko xehetasunak.

ENPRESAREAN TB - Azken saioak



GORKA ETXABE (Arteman Komunikazioa): "Bizi-bizian: talentua erakarri"

Gaur egungo enpresen lehiakortasunerako gakoa talentua erakartzea eta fidelizatzea dela azaldu digu Etxabek. Pertsona-marka kontzeptuaz hitz egin digu eta azpimarratu du erakundeak osatzen duten pertsonak direla erakundearen ospearen, markaren eta komunikazioaren estrategiaren fokoa.




AINARA LOIARTE (Mintzanet): "Euskara, profesionalen bidelaguna"

Mintzanet proiektuaren berri eman eta arlo profesionalen euskara bidelagun izateak dituen abantailak aurkeztu dizkigu Loiartek. Egitasmoak "Bidelariak" eta "Bidelagunak" harremanetan jartzen ditu elkarrizketak euskaraz izateko.

XABIER BARINGA-REMENTERIA (Kide Aholkularitza):

"Enpresa-proiektu bat martxan jartzean kontuan izan beharreko hiru jarraibide"

Ekintzailea zara, izan zinen edo izango zara? Enpresa-proiektu bat sortu duzu, edo sortuko duzu? Kide Aholkularitzako Xabier Baringa-Rementeriak enpresa sortzaile eta ekintzaileei zuzenduriko jarraibideak eskaini dizkigu, Muxote Potolo Bateko Miryam Artola artistaren laguntzarekin.



ITSASO OLAIZOLA (Ekogunea): "Euskaraz, bizi-pozarekin, bizi-kalitatearekin eta bizi-jasangarritasunarekin"

Ekogunetik, euskara eta ekologiaren arteko loturaz hitz egin digu Olaizolak; azpimarratu du garapen jasangarria izateko hizkuntzen garapena ezinbestekoa dela eta jakin behar genukeela euskaraz hobeto biziko garela, bizi-pozarekin, bizi-kalitatearekin eta bizi-jasangarritasunarekin."



Enpresarean TB nahieran:



Arabako enpresetan, euskara Lanabes

Bai Euskarari Elkarteak "Arabako Euskara Lanabes" jardunaldia antolatzeaz arduratu da eta proposatutako etorkizuneko erronkei aurre egiteko lanean ari da

Lanabes -Arabako Euskara Lanean- egitasmoa talde eragileak **"ARABAN, EUSKARA LANABES"** izeneko jardunaldia antolatu zuen ekainaren 4an, Arabako Industria, Merkataritza eta Industria Ganbararen. Elkarteak, enpresa eta administrazio 50 lagun inguru elkartu zituen proiektuaren ibilbidea partekatze eta Arabako alor sozioekonomikoa euskalduntzeko erronkak irudikatze.

Pilar García de Salazarrek, Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiordeak, eta Igone Martínez de Lunak, Euskara, Kultura eta Kirol saileko Foru Diputatuak, eman zioten hasiera ekitaldiari, Lanabes proiektuaren xede nagusia nabarmenduz: Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzea, sustatzea, handitzea eta bitartekoak zein ereduak eskaintzea.

Ondoren, Lanabes egitasmoaren ibilbidea errebasatu zuen Rober Gutiérrezek, Bai Euskarari Elkartearen zuzendariak, eta gaur egun eskaintzen dituen aukerak azaldu zituen, sortu berri duten katalogo baten bidez.

Saioa sinplea eta dinamikoa izan zen, parte-har-

tzea errazteko eta aurrera begirako ideia eta hausnarketa eraginkorrak lortzeko. Gonbidatuak taldeka antolatu ziren eta solasaldirako hainbat ariketa landu ziren LANABES proiektuak Arabako alor sozioekonomikoan euskara sustatzeko 2015etik egin duen ibilbidearen ideia nagusiak ateratzeko eta, horretan oinarriturik, etorkizuneko foku eta proposamen nagusiak identifikatzeko.

"Elkarte, enpresa eta administrazio 50 lagun inguru elkartu gara Arabako erronkei begira elkarlanean jarraitzeko"

"Enpresen eta entitateen sarea ehuntzen jarraituko dugu, komunitateari euskara balio gehigarri gisa txerta dezaten laguntza, tresnak eta baliabideak eskainiz"

**KULTURA EUSKARA
HERRIAREN GEROA**



Idea guztiak mapa bisual batean jaso ziren.



Administrazioa, enpresak eta elkarteak, elkarlanean

Igone Martinez de Luna

Euskara, Kultura eta Kirol saileko Foru Diputatuak

“Erakundeak eta arlo sozioekonomikoko eragileak elkartu gara, euskara eta lana nola uztartu lantzeko. Araban erronka da arlo sozioekonomikoan euskara bultzatzea (...) Egia esan, oso pozik gaude jende asko hurbildu delako ekitaldira. Proposamenak Arabako Foru Aldundia egiten ari den euskararen plan estrategiko berria txertatzekoak izango dira”

Olatz Agorria

Electra Vitoria Orona – Euskara planeko koordinatzailea

Lazarraga Sarien ondorengo mokadutxoan aipatzen genuen Araban enpresa asko zeudela euskara plan ezberdinetan parte hartzen, baina elkarren artean ez zegoela, ez harreman, ez elkar ezagutzarik. Hori dela eta, Lanabes bezalako egitasmo bat beharrezkoa da guretzat: elkar ezagutzeko, egiten diren ekimen horiek partekatze eta erronka berriak bultzatzeko.

Jon Irizar

Mutualiako euskara dinamizatzailea

“Gure erakundeak argi du zerbitzu bat ematen dugun heinean, euskara txertatzeak eskaintzaren kalitatean eragiten duela. Guretzat beharrezkoa da horrelako ekimenetan parte hartzea, uste baitugu erakundeen arteko elkarlana sustatuz eta sareak sortuz inertzia positiboak lortu daitezkeela eta ekarpenak eman eta jaso ditzakegula”

Iratxe Zuazola

El Corte Ingléseko euskara zerbitzuko koordinatzailea

“Euskarak balio erantsi bat ematen dio enpresari eta kontsumitzaileari. Gizarteari begira ari gara lanean eta euskara hor egon behar da, eta horren alde lan egingo dugu etengabe. Horrelako proiektuetan parte-hartzeak, bakarrik ez sentitzeak eta talde lanak balio duela ikusteak bultzada ematen digute”



Baietz 60

establezimendu berri Gasteizen,

lehen hitza
euskaraz egiteko

#LehenHitzaEUS

bai



Baietz 60 establezimendu berri Gasteizen, lehen hitza euskaraz egiteko

Bai Euskarari Elkartek eta Gasteizko Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute. Helburua da Gasteizen martxan jarritako “Lehen Hitzak balio handia du” kanpainara 60 establezimendu berri gehitzea, eta hiriko merkatariek eta ostalariek euskararen erabilera areagotzeko erraztasunak eta baliabideak eskura jartzea.

Gasteizen, Lehen hitza euskaraz

Iñaki Prusillak, Gasteizko Udaleko Euskara Zinegotziak, nabarmendu du “gero eta gasteiztar gehiagok euskara egunerokotasunean erabiltzeko hautua egiten” dutela eta “Udaletik kontsumoan ere euskara sustatzeko asmoz” sinatu dutela honako hitzarmena.

Rober Gutiérrezek, Bai Euskarari Elkartearen zuzendariak, kontsumitzaileengan eta euskararen balioan jarri zuen fokua hasieratik: “euskara kontsumitzaile irizpidedunaren ezaugarria da. Bertakoa, hurbila, ekologikoa, kalitatekoa kontsumitu nahi izaten dugu. Horregatik, euskararen aldagaiari garrantzia ematen dioten kontsumitzaile irizpidedun aktiboak giltzarri izango dira kanpaina honetan”.

Gasteizko euskararen mapan parte-hartzeko prozesua

Bai Euskarari ziurtagiria lortu eta mapan gehitzeko prozesua eta metodologia erraza da; Bai Euskarari Elkartea establezimendua ezagutzera hurbilduko da, hizkuntza egoeraren azterketa egiten lagunduko dio eta aurrerapausoak emateko aholkularitza eta baliabideak eskainiko dizkio. Aukera hau doan eskainiko da 2018an zehar; 2019tik aurrera ere, dirulaguntzak egongo dira.

Gasteizko erreferenteak euskaraz kontsumitzearen alde

Hiriko pertsona ezagunek babesa eskaini diote ekimenari, euskarazko kontsumoaren aktibazioaren garrantzia azpimarratuz eta lehen hitza euskaraz egitearen balioa azalduz.

Mikel Urdangarin (Bakarlarria):

“Merkatariei esango nieke euskaldun askok eskertzen dugula lehenengo hitza euskaraz jasotzea. Euskara erabilia esparrua zabalduko dutela eta bizi diren herriarekiko harmonia handiagoan biziko dela.”




Karmele Jaio (Idazlea):

“Erosketak egiterako garaian asko eskertzen dut euskaraz artatua izatea. Niretzat eskubide kontu bat izateaz gain, denda horrek eskaintzen duen bikaintasun seinale bat ere bada.”

Iñigo Etxezarreta (ETS-ko abeslaria):

“Azken 10 urteetan egoera izugarri aldatu da gure hirian. Gaur egun, oso normala da euskara entzutea kaletik. Seguruenik hementik urte batzuetara euskaraz bizitzea posible izango da Gasteizen.”



Ane Aldalur eta Cristina Molinuevo (Araskiko jokalaria):

“Gure bizitza osoan zehar, euskaraz ikasi dugu. Arlo pertsonalean, lagunekin euskaraz egiten dugu. Kontsumoan ere euskara normaltasunez bizitzea gustatuko litzaiguke.”

Gorka Ortiz de Urbina:

“Gasteizen kontsumitzen dut. Baloratzen dudana gehiena gertutasuna da, hurbileko komertzioa eta tokiko produktuak lehenesten ditut. Gertutasun horren barruan, hizkuntzak balio handia du.”





Ziurtagiri bat? Eta askoz gehiago

Hemezortzi urte bete ditu Bai Euskarari ziurtagiriak, aurtengo ekainaren 13an adin nagusiko egin zen zerbitzua euskaraz eskaintzeko eta euskaraz lan egiteko urratsak ematen ari diren enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak identifikatzen eta saritzen dituen baiezgarria. Abian jarri zenetik, etengabe garatu eta egokitu da proiektua. 2007an, Bai Euskarari Elkartearen sorrerarekin, egitasmoa beste entitate batzuekin partekatu zen eta 11 urte be-

randuago, Bai Euskarari, ziurtagiri bat baino askoz gehiago da.

Elkarlana da proiektu honen oinarria sorreratik eta euskal komunitatearen inplikazioari eta ekarpenari esker, aurrerapauso nabarmenak eman ditu helburua lortzeko bidean. Erronka zehatza da: euskara eremu sozioekonomikoan txertatzea eta erabiltzea, egunerokoan normaltasunez aritzeko eta hizkuntzaren biziberritzerako.

Iparra argi dagoelarik, Bai Euskarari Elkartea komunitatea sendotzeko ari da lanean, baliabideak etengabe sortzen eta eguneratzen. Eta ez hori bakarrik; gero eta eragin handiagoa hartzen ari diren beste zenbait proiektu ere ari da elikatzen: Enpresarean, enpresen eta profesionalen sarea; Lanabes, Araban Euskara Lanean; eta Lansarean, euskarazko lan-atari bakarra, besteak beste.

Zer da, ba, Bai Euskarari?

Komunitatea da Bai Euskarari

Eragilea da Bai Euskarari

Etengabeko ikasketa prozesua da Bai Euskarari

Lehiakortasuna de Bai Euskarari

Enpresen eta profesionalen sarea da Bai Euskarari

Balioa da Bai Euskarari

Euskara eskura

Bai Euskarari, ziurtagiri bat baino askoz gehiago da.

Ezagutu Bai Euskarari Elkartearen aukera guztiak katalogo berrian:



ALOR SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARAREN ERABILERA ERRAZTEKO PROIEKTUAK, TRESNAK ETA BALIABIDEAK



Bai Euskarari Ziurtagiria:

euskara erabili eta sustatzen duten enpresa, saltoki eta entitateak identifikatzeko ikurra.

www.baieuskarari.eus/eu/proiektuak/ziurtagiria



Enpresarean:

enpresa eta profesionalen sarea; foroak, azokak, hitzaldiak... elkarlana eta negozio harremanak euskaraz sustatzeko sarea.

www.enpresarean.eus



Lansarean:

enpresa edo-eta profesional euskaldunak ezagutzeko aukera errazten duen euskarazko lan-ataria eta aplikazioa.

www.lansarean.eus



#BaiPraktikaEgokia Euskaraz lan egiteko 20 jarraibide:

euskaraz lan egiten lagunduko dizun jarraibide egokien gida.

www.baieuskarari.eus/eu/bai-euskarari-komunitatea/praktika-egokia-eta-eredugarria-euskaraz



Autodiagnostikoa:

hizkuntzaren egoeraren diagnostikoa sei pausotan, azkar eta erraz, egiteko aplikazioa.

www.baieuskarari.eus/eu/auto-diagnostikoa



Baliabideak:

baieuskarari.eus atarian era guztietako entitateen hizkuntza egoera hobetzeko informazio, aholku, material... anitz.

www.baieuskarari.eus/eu/baliabideak



Diru-laguntzak:

euskararen ezagutza ere erabilera sustatzeko laguntza ekonomikoak.

www.baieuskarari.eus/eu/baliabideak/O-diru-laguntzak



Bai Euskarari komunitatea:

baieuskarari.eus atarian Bai Euskarari Ziurtagiria duten establezimendu guztien zerrenda eta kokapena aurkituko dituzu.

<https://www.baieuskarari.eus/eu/ziurtagiridunak>



Lanabes • Araban euskara lanean:

Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzeko eta handitzeko lanean diharduen egitasmoa.

www.lanabes.eus



Lazarraga Sariak:

Arabako Foru Aldundiarekin batera antolatutako sariaketa, arlo sozioekonomikoan euskararen alde lan egin duten entitateak edota pertsonak saritzeko, aitortzeko eta ereduak eskaintzeko.

<https://www.baieuskarari.eus/eu/proiektuak/lazarraga-sariak>



LehenHitzaEUS:

Euskarazko kontsumoa sustatzeko kanpaina. Kontsumitzaile eta merkatariarentzat baliabideak.

<http://www.baieuskarari.eus/eu/lehen-hitza-eus/zer-da>

Bai Euskarari

ziurtagiri bat baino askoz gehiago

bai
euskarari

baieuskarari.eus



Ziurtagiri bat baino
askoz gehiago